



MIEL MARI ELOSEGI 'LUZE' FINALEAN IZANGO DA

Pasa den asteburuko finalerdian lortu zuen leitzarrak Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalerako txartela 7

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



Asteartea
2008-03-04

VIURTEA 1.377.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Emanaldiaren aurkezpena obretan dagoen Irurako Ikastolaren eraikinean egin zuten atzo. IMANOL GARCIA

PIRRITX ETA PORROTX KILOMETROEN ALDE ESKERRAK EMANEZ

IRURA Larunbat honetan Tolosako Leidor aretoan 'Eskerrik asko' ikuskizuna eskainiko dute pailazoez, 17:00etan eta 19:00etan 4

David Beldak irabazi du V. Aiztondo Klasikoa

AIZTONDO Ugaitz Artola billabonatarra ere lehen postuetan izan zen proba osoan zehar, baina azken txanpan «indarrrik gabe» gelditu zen 4

Salberri, Villena, Arechaga eta Mujika irabazle Eskolartekoan

TOLOSALDEA Pasa den larunbatean jokatu zituzten xakeko partida gehienak Tolosako Kultur Etxean; irabazle gehienak berriak ziren 3

Aisialdirako aukera ugari kultur eskaintzari esker

TOLOSA Aste Santuetako oporraldia dela-eta ekitaldi gutxiago izango dira martxoan zehar 2

MARTXOAK 7 OSTIRALA *independentzia eguna* *musika, kultura*
7etan Trianguloan Tolosan **Martxoak 9an PLANTO egin**



Musika Eskolakoak «bikain»

TOLOSA ■ Ospatu berri dute Andoainen III. Piano Jaialdia, eta bertan, Tolosako Udala Musikako Eskolako 27 ikasle banakako modalitatean eta binakakoan hartu zuten

parte. Denen artean, urrezko, zilarrezko eta brontzezko dominak ekarri zituzten, eta Musika Eskolak zoriondu egin nahi ditu, aurkezten diren lehen aldian baitzen. **HITZA**



Diaboloarekin jolasean

ANOETA ■ Diaboloarekin jolasean aritu ziren atzo arratsaldean, Anoetako Kultur Astearen baitan. Aimar Alonso anoetarra izan zuten irakasle bertaratu ziren 25 gaztetxo in-

guruk, batzuk, gainera, oso trebeak zirela ere esan behar da. Gaur, *Intervencion y vinculo* liburuaren aurkezpena izango da, eta bihar, Loatzo musika eskolako kontzertua. **IG**

Aisialdirako proposamenak

Kultura ■ Aste Santua tartean, ohikoa baino ekitaldi gutxiagorekin datorkigu hilabetea; hala ere, bada non aukeratu.

ERREDAKZIOA

Aste Santua dugu laster, eta hori nabarituriko da martxoko kultur egitarauan, askorentzat opor egunak izango diren horietan, Tolosa Gourmet izan ezik, ez baita ia ekitaldirik izango. Hori bai, hilabeteak gainerako egunak bete-beteak datoz, eta nagusitzen direnak, ostiral honetako Pedro Guerraren kontzertua, Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira antolatutako ekitaldiak, Memoria historikoa berreskuratzeko bulegoa, euskarazko komikien erakusketa, ikastaroak eta zinema dira.

Aranburu jauregia

■ 17:30etik 20:30era zabalik, jai-egun eta astelehenetan izan ezik.



Tomas Hernandezen lanak hilaren 29ra arte daude ikusgai Aranburun. **EZEIZIA**

Aste Santuan egunero egongo da irekita astelehenean ezik.

■ **Tomas Hernandez.** Bere eskulturak martxoaren 29ra arte izango dira ikusgai.

■ **Txetxo Gaztañaga.** Tolosar artistaren koadroak ikusgai daude apirilaren 5era arte.

Kultur Etxea

■ **Euskal Herriaren historia.** Lizardi elkarteak antolatutako ikastaro-

aren baitan, martxoaren 10ean Mikel Sorauarekin *Historia de Euskal Herria* eskainiko du, eta martxoaren 31n Pello Esartek *1512ko konkista*. 19:30ean izango dira bi hitzaldiak.

■ **Merkatu Txikia.** Amarotz auzo elkarteak antolatuta, martxoaren 10etik 16ra izango da, Nikaraguarren alde.

■ **Odol-ematea.** Hileroko odol ardatze egingo dute, hilaren 17an, 18:00etan.

■ **Euskarazko komikien erakusketa.** Galtzaundi elkarteak antolatuta, martxoaren 28an hasiko da. 17:00etatik 20:00etara astegunetan, eta 10:00etatik 13:00etara asteburuan.

■ **Tolosa:** Argazkigintza ikastaroa: Paisaia, martxoaren 31tik aurrera, Iñigo Royorekin.

Leidor aretoa

■ Zinema:

■ *Giulietta de los espíritus*: etzi, 19:00etan eta 21:45ean.

■ *Caramel*: larunbata, hilak 8, 22:30ean.

■ *Nocturna*: igandea, hilak 9, 17:00etan.

■ *XXY*: igandea, hilak 9, 19:30ean eta 22:00etan, eta astelehena, hilak 10, 20:30ean.

■ *Lady Chatterley*: osteguna, hilak 13, 19:00etan eta 21:45ean.

■ *Expiacion*: larunbata, hilak 15, 17:00etan eta 22:30ean; igandea, hilak 16, 19:30ean eta astelehena, hilak 17, 20:30ean.

■ *This is England*: larunbata, hilak 15, 19:30ean, eta igandea, hilak 16, 22:00etan.

■ *Mr. Margorium y la tienda magica*: igandea, hilak 16, 17:00etan.

■ **Pedro Guerra.** *Vidas bira* berriko kontzertu bakarra Euskal Herrian, hilaren 7an, 20:30ean.

■ **Pirritx eta Porrotx.** Kilometroak 08k antolatuta, hilaren 8an, 17:00etan eta 19:00etan.

■ **Tolosako Orfeoia.** Hilaren 14an izango da kontzertua.

Besterik

■ Emakumeen Nazioarteko

Eguneko ekitaldiak: Tolosako Udaleko Berdintasun sailak antolatuta, ekitaldi ugari, martxoaren 3tik 13ra. Tolosaldeko Bilgune Feministak antolatuta, hilaren 8an ziangoa dira ekitaldiak Tolosan.

■ **Tolosa Gourmet:** Labela duen Arkume Esne Bildots Festa, Zerkausien, hilaren 19tik 23ra.

■ **Trikujai:** Diskofesta Beotibarren, hilaren 15ean, 22:00etatik 05:00etara.

■ **The Matt Hardin Project:** Martxoaren 14an, Fronton kafetegian, 23:30ean.

■ **Gazteria Ikastaroak:** Hasi dira dagoeneko. Informazio gehiagorako, 943 67 03 88.

Ekintza planaren lehen zirriborroa aurkeztuko dute ostiralean, Apaiz-etxean

Aldaba ■ 2007ko irailean hasi ziren Berpiztu egitasmoarekin; auzotarrek somatu dizuten hutsunez ariko dira.

ERREDAKZIOA

Ostiral honetan, hilaren 7an, Auzo batzarra egingo dute Aldabako Apaiz-etxean, 20:00etan. Udalak deiturikoa da, hain zuzen ere Berpiztu egitasmoa dela-eta osatu den ekintza planaren lehen zirriborroa aurkezteko eta auzotarren artean antzeman diren hutsuneei konpibideak bilatzen saiatzeko helburuz.

2007. urteko irailean, landa garapenerako programa gisara, Berpiztu egitasmoa jarri zuten martxan Aldaban, Tolosako Udala, Itsasmendiko eta Tolomendiri esker. Hala, elkarrizketa bidez lorturiko auzotarren iritzia, eta beste-lako bileretan esandakoak kontuan hartuz osatu dute Ekintza Planaren proposamena. Ekintza plan honetan ekintza mota ezberdinak ikusi dituzte beharrezkoak direla: elkarlana suspertzea, biztanlegoa auzoan finkatzea, zerbitzuak, ekonomia eta ingurumena, besteak beste.

Berpiztu egitasmoa erabat irekia da eta Udalak auzotar guztien ekarpenak jasotzeko nahi dituela azaldu dute bertako ordezkariak. Gainera, auzoko etorkizunerako planigintza definitu nahi dutenez, «oso garrantzitsua da auzotar guztiek parte hartzea».

DONOSTIALDEKO ENPRESA BATEK KOMERTZIALA BEHAR DU (Erref. Bt 08_1)

Izaera dinamikoa eta harremanetarako gaitasuna duen pertsona baten bila gabiltza. Esperientzia izatea ez da beharrezkoa, baina kontuan hartuko da antzeko lanetan eskarmentua izatea. Ezinbestekoa da euskaraz jakitea eta gidabaimena eta autoa izatea.

Aukeraturako pertsonaren egitekoa hainbat produktu saltzea izango da, eta etorkizun interesgarria duen proiektu berri batean parte hartzeko aukera eskainiko zaio.

Lan baldintzei dagokienaz, lan kontratua eskaintzen da, gizarte segurantzarekin, eta, soldata finko interesgarriaz gain, salmenten araberako komisioak ere izango ditu.

Curriculum Vitae zehatza bidali martxoaren 10erako gizabaliabideak@jarduna.net HELBIDE ELEKTRONIKORRA. Ez ahaztu erreferentzia zehatzea.



Tolosako Kultur Etxean jokatu zituzten larunbat goizean Tolosaldeko Eskolarteko txapelketaren finalak. HITZA

Salberri, Villena, Arechaga eta Mujika izan dira garaile Tolosaldeko Eskolartekoan

Xakea » Larunbatean jokatu zituzten txapelketako azken saioak Kultur Etxean; irabazle gehienak berriak izan ziren.

ERREDAKZIOA

Pasa den igandean Tolosaldeko Eskolarteko Txapelketako azken saioa jokatu zuten Tolosako Kultur Etxean. Lau igandetan zehar, eskualdeko xakelari gazteenak aritu dira lehian nor baino nor Tolosan. Eskoletan ikasitakoa erakusteko aukera izan dute saio

hauetan, eta beraiek esan bezala, oso gustura amaitu dute denek.

Sailkapenari dagokionez, infantiletan Beñat Salbarredi, Tolosako Orixe institutuko ikaslea izan zen txapeladuna. Bigarren geratu zen Jon Romero, Ibarra Uzturpe ikastolako.

Alebinen mailari dagokionez, iazko txapeldun berak eraman zuten aurretik ere urrezko domina, Villabonako Jesusen Bihotzako Aitor Villenak, hain zuzen ere. Bigarren, ikastetxe bereko ikasle bat izan zen, Eneko Maiz. Amaiera bikaina osatu zuen honek. Podiuma osatzeko, azkena Asteasuko

Pello Errota ikastetxeko Mikel Muguruza izan zen.

Azkenik, Benjaminetan aurreikuspen guztiak bete ziren eta Tolosako Hirukideko ikasle den Mikel Arechaga izan zen txapelduna. Sailkapeneko ondorego postuan Alegiko San Juaneko Igor Mendizabal izan zen eta Anoetako ikastolako Oier Otxoa hirugarrena. Nesken sailkapen berezian, lehen hiru postuak honela geratu ziren: Tolosako Samaniego ikastetxeko Jone Mujika izan zen garaile, Ane Salbarredi berastegierra bigarren, eta Anoetako ikastolako Aitana Eizaguirre hirugarren.

Laskorainek 6-5 galdu du Iskepot talde arabarraren aurka

Areto futbola » Lehendabiziko zatian Tolosakoak gailendu baziren ere, bigarrenean gauzak aldatu egin ziren.

ERREDAKZIOA

Arabara egin behar izan zuen bisita Laskorainek joan den larunbatean. Etxean oraindik porrotik ezagutzen ez zuten Izkepoten aurka indarrak neurtu zituen Azkenean esku hutsik bueltatu behar izan zuten Alonsoren mutilek.

Norgehiagokaren hasiera parekatua izan zen, ate bakoitzean bina gol sartu baitzituzten lehen minutuetan, Barriolak eta Amatriainek lortu zituzten tolosarren sareraketak. Ondorengo minutuetan Otxoa gazteak beste bi gol sartzea lortu

zuen, 2-4 itxaropentsu batekin aldagelaratu zirelarik.

Bigarren zati beltz batek zapuztu zuen taldeak aurretik beteriko lan guztia, izan ere eta atsedendia bukatu bezain pronto, arabarrek izugarritzko txikizioa gauzatu zuten Alonsoren mutilek defendatzen zituzten lerro guztietan.

Etxeokoen jokalariek lan fina bete zuten azken 20 minutuetan eta presioa, intentsitatea eta kalitatezko jokaldi etengabeen ondorioz markagailua biratu zuten bigarren zatiko horitxoen gol bakarra egin zuten Zabalaren sareratzeta alferrikakoa bihurtuaz.

«Arlo guztietan nagusi agertu zen talde baten aurrean belaunikatu eta aitzakiarik merezi ez duen porrota aitortzea da joan den larunbateko partidari buruz egin daitekeen argibiderik egokiena»,

taldeko arduradunen ustez. Laudiotarrek gardentasunez azaldu zuten 21 jardunaldi eta gero etxean orain arte norgehiagokarik galdu ez izanaren zergatia, bigarren erdian, mendean hartu baitzituzten Tolosakoak.

Porrotaren ostean, hirugarren postuan jarraitzen du Laskorainek, baina Zierbena liderra eta Gipuzsala bigarren sailkatua urrutu xamar kokatu dira azken bi jardunaldietan galdu eta gero. Aste honetan Elorrikoen aurka gogotsu aritu eta denboraldiaren azken txanpa seriotasun beteko dutela ziur daude Laskorainekoak.

Larunbatean Laudion, Alonso entrenatzailea, Javi delegatua, Domentxe, Telletxea, Zabala, Saldias, Ekhi, Barriola, Amatriain, Otxoa, Telleria, Gil eta Arribilaga izan ziren.

Oraindik pixka bat falta zaie irabazten hasteko

Arrauna » Gipuzkoako Batelen ligan dihardute TAKeko hamaika batelek; talde gehienak lehen postuetan dabilta.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Batelen Ligako laugarren jardunaldia jokatu zuten larunbatean. Bertan, kadete mailako mutilen A taldeak, eta jubenil-seniorren neskek, nahiz jubenil mutilek lortu zituzten emaitza onenak. Hirurak ere bigarren postuan sailkatu ziren beraien mailan.

Pasai San Pedro inguruko urretan jokatu zituzten jardunaldiak. Han aritu ziren lehian Tolosalde-

ko Arraun Klubeko hamaika taldeak. Oraingoan, inor ez zen garaile suertatu, baina batzuei gutxi falta izan zitzaion. Emakumezkoetan, infantil-kadete mailan, 5. geratu ziren Tolosaldea A taldekoak, B-koak 7. eta C-koak 10. Infantil mutilen artean berriz, A taldekoak bosgarren geratu ziren eta B-koak zazpigarren. Kadete mutiletan, lehen aipatu bezala, eskualdeko batzuk 2. geratu ziren. Tolosaldea B-koak berriz, 4. eta C-koak 9.

Jubenil-senior mailako neskek, Aita Marikoen atzetik, bigarren izan ziren. Jubenil mailako mutilak ere Aita Marikoen atzetik iritsi ziren helmugara, bigarren sailkatuz. Azkenik, senior mutilak hirugarren ailegatu ziren.

Tolosa CFko ia talde guztiek irabazi dute

Futbola » Hirugarren Mailan jokatzeko duten mutilek izan ezik, gainontzeko guztiek garaiopena lortu zuten.

ERREDAKZIOA

Tolosa CFko talde guztiek lortu dute garaiopena asteburuan, Hirugarren Mailakoek izan ezik. Hauek, 2-0 galduta itzuli baitziren Portugaletetik.

Neskak Ostadarren kontra lehiatu ziren etxean, hauei 2-1 irabazi zieten. Jubenilen Ohorezko Mailan jokatzeko duten mutilek berriz, Numantzia izan zuten aurkari. Hauek ere etxean jokatu zu-

ten, eta 1-0ekoarekin irabazi zieten.

Lurraldekoen Mailan, erraz irabazi zieten Tolosakoek Behobiari. Jubenilen Ohorezko Mailan berriz, 4-2 irabaztea lortu zuten eskualdekoek. Hauek Burumendi taldea izan zuten aurrean. Kadeteen Ohorezko Mailakoek ere, gauzak ongi joan zitzaizkien, 1-3 irabazi baitzieten Ordiziakoei. Kadeteen lehendabiziko mailakoek berriz, izugarritzko garaiopena erdietsi zuten, 0-10 irabazita itzuli baitziren Usturildik. Azkenik, Infantilen Ohorezko Mailan, Real Union taldekoak izan ziren Tolosakoen aurkariak, eta 0-1 irabazi zuten eskualdeko futbolari gazteek.

Adinari buruzko gogoetan Samaniegon

Hezkuntza » Gaur, 16:30ean izango da hitzaldia, Haur Hezkuntzako Balioanitzeko gelan.

ERREDAKZIOA

Elkarbizitza Planaren baitan, Samaniegon, familientzat hitzaldia izango da gaur 16:30ean. Hizlaria M^a Jesus Uranga, familia terapeutza izango da. Saioa Haur Hezkuntzako balio anitzeko gelan izango da. Gaia da: adinari buruzko gogotak eta nola lagundu garapenean.

Iragarki laburrak

GALDUTAKOAK

■ **Txakurra.** Horixka koloreko Labrador Retriever arrazako txakurra galdu da Belauntzan. Aurkitzen duenak deitu ondorengo telefono zenbakira: 645 71 35 20 (arratsaldean).

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosa erdian bi logelako etxea salgai, egoera onean, oso merkea. Interesatuak deitu 665 70 86 35era.

Kilometroen aldeko emanaldia egingo dute Pirritx eta Porrotxek

Irura » 'Eskerrik asko' ikuskizuna egingo dute larunbatean Leidorren; obretan dagoen eraikin berria izan da aurkezpena.

IMANOL GARCIA

Iruran egingo den Kilometroak 2008ren egitasmoen baitan beste ekitaldi baten berri eman dute Irurako Ikastolakoek. Pirritx eta Porrotx pailazoez Tolosako Leidor aretoan hilaren 8an emango duten *Eskerrik asko* emanaldia. Aurkezpen berezia izan zen, eraikitzen ari diren Irurako Ikastolaren eraikin

berria egin baitzuten, nolabait erakusteko Kilometroak 2008ren lortzen den diruaren helburua. Aurkezpenean, pailazoez gain, Ikastolako ikasleak, Joxe Mendizabal Kilometroak 2008ko koordinatzailea eta Sorkunde Irazu Ikastolako lehendakaria izan ziren.

Halazioen Joxe Mendizabal Kilometroak 2008ko koordinatzaileak: «Egiten arigaren ekintza guztiak eraikina eraikitzeko dira. Hemen bertan egin dugu aurkezpena, erakusteko eraikin berria ba-dola aurrera. Hau da gure ametsa». Ikastolatik maiatzaren 6rako espero dute obrak amaitzea.



Eskerrik asko emanaldiaren aurkezpena Ikastolaren eraikin berria egin zuten. I. GARCIA

Pirritx eta Porrotxek «hasi ginetik egin dugun bezala, euskara eta alaitasuna sustatzeko» konpromisoa adierazi zuten. Obretako kasakoak jantzita eta betiko umorearekin, «Ikastolaren lanarekin bat egiten» dutela azaldu zuten eta Irura handitzen ari den heinean,

herri euskaldun bat izateko Ikastola egiten ari den lana goraiatu zuten. Bai Pirritx eta Porrotx zein Ikastolako ikasleak Kilometroak 2008ko dendetan salgai jarri berri dituzten udaberri denboraldiko jantziekin agertu ziren aurkezpena.

Eskerrik asko ikuskizunaren bisio izango dira larunbatean. Bata 17:00etan eta bestea 19:00etan. Lehenengo saiorako sarrerari ez dago eta bigarrenorako sarrerak Irurako Ikastolan zein Kilometroak 2008ko Tolosako dendan eros daitezke.

David Beldak irabazi du V. Aiztondo Klasikoa

Aiztondo » Ugaitz Artola aurreneko postuetan izan zen proban zehar, baina bukaera aldera, indarririk gabe gelditu zen.

I. GARCIA

David Beldak irabazi du V. Aiztondo Klasikoa. Probaren azken txanpara iritsitako taldetik ihes egin zuen Adunara igotzen hasi zirela eta segundo batzuk hartu zituen helmugara bakarrik iristeko. Bigarren David Gutierrez eta hirugarren Luis Maldonado izan ziren. Biak bi segundotara iritsi ziren. Ugaitz Artola billabonatarrak



Podioa lortu zuten hiru txirrindulariak sariak jaso ondoren. ANDER OTEZABAL

hainbat aldiz ihes egin zuen eta aurreneko postuetan izan zen proban zehar, baina azkenean ezin izan zuen saririk lortu.

Proba ederra ikusi ahal izan zuten txirrindularitza-zaleek. Artolak azaltzen duenez, «zirkuitua hasi aurretik Ordiziaraino joan-etorria egin genuen eta hor ez zen inolako ihesaldirik izan». Villabonara berriro bueltatzerakoan hasi ziren mugimenduak. Artola gogoz aritu zen: «Etxean korritzen genuen eta aurpegia eman nahi nuen».

Zirkuitua hasi eta berehala talde bat ihesi joan zen, tartean Artola zegoela. «Bi bira egin genituen eta gero pelotoiak harrapatu egin gin-

tuen». Beste hiru txirrindularik ihesi egin zuten. Horieta bat Artola zen. «Hamar txirrindulariatako talde batek harrapatu gintuen eta Alkizako gaina igotzen hasi arte egon ginen talde horretan. Ordurako indar gutxiarekin geunden eta Adunara ahal zen ondoen airis-tea zen helburua».

Alkizara igotzen egin zuten aurrera favoritoek. Artolak azaltzen duenez, «ondo nago, baina oraindik denboraldiaren hasiera da eta besteek puntu bat gehiago dute eta aldapa gora igotzen atzetik joatea gehiago kostatzen da». Aurrera egin zuen talde horretatik indartsuena David Belda izan zen, besteak atzean utziz azken aldapan.

nekanealtzela emanbotoa

Diputatuen Kongresurako hautagaia Gipuzkoatik



eusko
alkartasuna

herriarenahotsa

euskoalkartasuna.org



«Independentziaren aldeko aldarria» jai giroan



Goitik behera, ikaztegiatiko, Orendaingo, Villabonako eta Alegiko Independentzia eguneko ekitaldiak. HITZA / ANDER OTEZABAL

Tolosaldea » Asteburu honetan eskualdeko hainbat herritan Independentzia Eguna ospatu dute.

ERREDAKZIOA

Herri kirolak, elkarretaratzeak, ekitaldi politikoak, ... Era guztietako ekintzen bitartez «independentziaren aldeko aldarria» egin dute asteburu honetan eskualdeko hainbat herritan.

Esaterako, Villabonan, Orendainen, Ikaztegiatan eta Alegian egin dute Independentzia Eguna, beste hainbat herriekin egin duten bezala.

Gutunak

Adunako herriari zorionak!

Aiurriko erredakzioa batzordeak Aiurri Aipamen Berezia ekitaldiaren bigarren edizioan Adunako herria nabarmendu du gizatasun arloan.

Ekitaldi honen bidez Aiurrik urtean zehar nabarmendu diren kultura, kirola eta gizatasun arloko garduerak txalotu nahi ditu.

Aiurriko erredakzio batzordearen ustez «ohikoa baino handiago da Sahara Herriarekiko Adunako Herriak erakusten duen elkartasuna eta haien jarduera urte guztian zehar izaten da, konpromisoa janari bilketaz haratago doa».

Beraz, zorionak herri guztiari, eta mila esker urte hauetan Saha-

rako Herriari behin eta berriro elkartasuna eta laguntza eskaintzeagatik, hala nola eskerrik beroenak ekitaldi denak aurrera eramaten lagundu diguten udaletxe, elkarte, denda, entrepasa, artista, lagun eta bereziki adunar guztioi!

Bestalde aipatu, Santa Ageda bezperan eskean ateratako diru kopurua 1.300 eurotako izan zela, eta Saharako kanpamentuetako Ausserd wylaian egin berri duten gutxitasun fisiko eta psikikoak dituzten umeen eskola hornitzeko erabiliko dela.

Berriro bihotz bihotzez, zorionak eta eskerrik asko adunar guztioi zuen lan eta elkartasunagatik.

Dani Arizala eta Josune Gerrickagoitia. Sahara Aduna Elkarte.

euskadin bizi naiz ni. Eskuakin eta batz ere, buruz egindako herria gara. Europako batezbestekoa baino langabezia gutxiago dugu.

Hobetzeko lanean jarraitu behar da. **zu, non bizi zara?**

Jon, Barmeo

Asko geratzen da eta egiteko.

eman botoa | EAJ PNV | www.eaj.pnv.ee

TOLOSA LANTZEN, SA

Tolosa Lantzen SAko Administrazio Kontseiluak, 2008ko otsailaren 26an, TOLOSAKO USABAL KIROLDEGIAN FUTBOL 7-KO ZELAIA (SOLARIUMA) GAUZATZEKO PROIEKTUA lehiaketa bidez kontratatzekeo bakintza administratibo partikularren agiria onartu zuen.

- 1.- Helburua.- "Tolosako Usabal kiroldegian Futbol 7-ko zelaia (solariuma) gauzatzeko proiektu"ko obrak egiteko lanak.
- 2.- Lizitazioaren zenbatekoa.- 719.207,99 € (BEZ barne)
- 3.- Lanak egiteko epea.- Guztia egiteko, 3 hilabeteko epea.
- 4.- Espedientea ikusteko.- Tolosako Udaletxeko Hirigintza eta Obrak Departamentuan (Plaza Zaharra, 6-B Telf.: 943697451)
- 5.- Behin-behineko bermea.- 14.384,16 €
- 6.- Behin betiko bermea.- Adjudikazio zenbatekoaren %4
- 7.- Enpresa sailkapena.- Bai

TALDEA	AZPITALDEA	KATEGORIA
A	1	C
A	2	C
C	6	C
C	4	B
I	6	B

8.- Proposamenak aurkezteko lekua eta epeak.- TOLOSA LANTZEN S.A. ren egoitzan (Tolosako Plaza Zaharra 6-B), Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik zortzigarren egun naturalerako 13:00ak baino lehen.

Epea larunbat, igande edo jai egunean bukatzen bada, proposamenak aurkezteko epea astelehena arte edo lehenengo lan eguna arte luzatuko da.

Proposamena korreoz bidaltzen bada, interesdunak egiaztatu egin beharko du, dagokion agiriarekin, posta-bulegotik zer egunetan bidali duen, eta Kontratazio-Organuari adierazi, egun horretan bertan, fax (943 69 75 02), telex edo telegrama bidez, proposamena bidali duela. Baldintza horiek betetzen ez badira, proposamena ez da onartuko.

Tolosan, 2008ko otsailaren 27an.

TOLOSA LANTZEN S.A. ko lehendakaria - Sin.: Jokin Bildarratz Sorron

E Elkarrizketa

MIKEL ERRAZKIN › Aranzadi Zientzi Elkarteko kidea

«Anoetako komunitatearen ikerketa txiki bat egin dut»

Anoeta » Kultur Astearen baitan, gaur Mikel Errazkin eta Kepa Fernandez de Larrinoak 'Intervencion y vinculo' liburua aurkeztuko dute.

ASIER IMAZ

Anoetan *Intervencion y Vinculo* liburua aurkeztuko dute gaur 19:00etan Udal areto nagusian. Liburuak herrien ondarearen gaia jorratzen du eta hainbat artikulu osatzen dute. Euskal Herriaren isla Mikel Errazkinek (Anoeta, 1976) idatzitako artikuluan aurki daiteke, Anoetaren inguruan idatzia, hain zuzen ere.

Zer auri daiteke Anoetaren inguruan liburuan?

Kepa Fernandez antropologoak editatu eta koordinatu du *Intervencion y Vinculo* liburua. Bertan kasuistika ezberdinak tratatzen dira, beti ere antropologiaren ikuspuntutik kultur garapena kontuan hartuta. Niri Anoetako kasua pika bat deskribatu, azaldu eta irakurketa desberdinak egitea eskatu zidan.

Nondik hasi zinen?

Anoeta azken batean Hego Euskal Herriko bilakaeraren metaforeta-

ko bat da; 60. hamarkada arte bizi-modu tradizional bat dago, gero industrializazioak eraginda, *Boom* demografiko bat ematen da eta 20 urtetan biztanlegoa hirukoiztu egiten da. Harreman sare tradizional horiek bizi-modu urbano eta hiritarra batetara bilakatzen dira, kultura ordezkarizetan ere aldatuak ditu. Anoetan kultur espazio berriak nola sortuz joan diren azaltzen saiatu naiz, bizi-modu urbano horretan egokitzen joan direnak. Hau da, bizi-modu urbano horretan herritar berri eta gazteak agertzen dira, eskualdetik etorriak, eta horien artean harreman sareak egituratzeko zer kultur politika eta zer kultur espazio berriak sortzen diren azaltzen saiatu naiz.

Nola egin duzu lan hori?

Lehenik eta behin, komunitatearen ikerketa txiki bat egin dut, historian zehar nola bilakatu den ikusiaz eta batez ere XX. mendean. Bigarren zatian, kasu praktikoak



ASIER IMAZ

deskribatuz, kultur espazio horiek nola sortuz joaten diren azaltzen saiatzen naiz, batez ere azkeneko urteetan abian jarritako kultur politika parte-hartzaileen inguruan. Orduarte ematen zen kontsumorako kulturak, alegia, zerbait ekoiztu baina jendea behatzaile soila izanik, salto estratergiako txiki bat ematen du, non herriko eragile sozial eta talde ezberdinen artean, kultur politika komun bat jartzen

den abian, horri modu metaforiko batean, *Auzolan kulturala* deitzen diogu. Hainbat errepresentazio ezberdin egin nahi dira kulturaren modu ezberdinak taularatu. Baina helburua ez da taularatzea, komuneko produktu bat sortzea baizik.

Zein dira aztertutako kasu zehatzak?

Adibidez bertso antzerkiarena izan daiteke kasu zehatz bat.

2.000. urtean jartzen da Anoetan abian eta herriko talde ezberdinak hartzen dira, kultur agerpen ezberdinak, adibidez dantza, musika, antzerkia, ... Herritar talde bat elkartzeko da eta gidoi bat idazten du, gero bertsoetara moldatzeko gidoi hori. Azkenik, herriko musikariak, aktoreak erregistro kolokial batzuk erabiliaz hori taularatu dute.

Dantza sokak ere garrantzia du Anoetan.

40 urteko geldialdia eta gero berreskuratu egin nahi da, berreskuratu baina baita berri ere. Balio tradizional horien errepresentazio bat da, baina gaur egungo gazteok zerbait diferentia nahi dugu, adibidez emakumeek parte-hartze zuzena izan nahi dute, ez dute omenduak izan nahi; ondorioz bi dantza soka ateratzen ditugu, bat mutilena eta bestea neskena. Armari berriaren kasua ere hor dago. Aurreko armari zaharrak eredu zaharkituak zituela ikusten genuen: arkume bat zeukan balio kristauak zituen, koroi borbondar bat non odolez denak desberdin gerala adierazten zuen. Errealitate berri batean, gaur egungo anoetarrek errepresentatuko zituen irudi baten beharra ikusi genuen, eurek aukeratu.

Nola burutu zenuten prozesua?

Prozesu parte-hartzaile eta luzea jarri genuen abian, galdeketa batekin amaitu zena. Herriak armari bat aukeratu zuen, egungo anoetarrek hobeto isladatzen dituen; baitetik, lurraldetasuna, natura isladatzen da Ori ibaiaren bidez. Bestetik Basagain, Anoetako lehen gizarte antolamendua errepresentatzen duena eta azkenik kukua, alegia, anoetarrok.

G Gutunak

Haur eskolaren inguruko gutuna

Gutuna sinatzen dugunok Uzturpe ikastolako gurasoak gara, ikastola honen aldeko sinadurak biltzen ari garenak.

Gutariko batzuk ikastolaren ibilbidea oso ondo ezagutzen dugu, gure seme-alabak aritu direlako eta ari direlako gaur egun bertan ikasten.

Ezagutu dugu eta bizitu dugu azken urteotan egin den lana; esfortzu paregabea profesionalen aldetik, gurasoekin bat eginez aurrera ateratzeko Ibarren daukagun eskola bakarra. Hezkuntza proiektu bat gauzatu da Ibarren: 0-16 urte bitarteko hezkuntza proiektua, sendoa, anitza, zilarrezko Q-a duena, hau da, kalitate handiko proiektu bat dugunaren ziurtagiria, eta urrezkoaren bila doana etengabe hobekuntza prozesu batean sartuta dagoelako.

Guzti honekin ditugun gure seme-alabentzat zerbitzu ezin hobeko eskaintzen dizkigu, eta horretaz gain, Uzturpe ikastolak gertutasuna ematen digu; edozein arazo sortzen denean momentuan saiatuko baitira soluzioa bilatzen, gurasoek partaidetza zuzena dugun proiektuan.

Udal Haur eskola, proiektu honetan adar oso garrantzitsua da. Haur eskolaren bitartez guraso askok ikastola benetan ezagutu dugu, eta gure haurrek bertan ikas dezatela erabaki.

Udal Haur eskolan egin duen gestioarekin eta bultzatu duen proiektuarekin, Uzturpe ikastolak matrikulazioa igotzea lortu du, eta bere egoera zailari buelta eman dio. Guzti hau esfortzu handi bat eginez eta profesionaltasun handia erakutsiz.

Ikastolak Udal Haur Eskola kudeatu duen erarekin, gurasoen asetze maila oso altua da.

Orduan, zerbitzu on bat daukagunean zergatik aldatu? Justu momentu honetan, gure esfortzu guztiak fruituak ematen hasia denean gainera.

Bestalde, Uzturpe Ikastola enpresa pribatu arrunta ez dela esan beharra dago. Uzturpe ikastola gurasoen eta irakasleen arteko kooperatiba bat da, herritarrek eta herritarrentzako sortua, eta are gehiago, Ibarren dugun eskola bakarra da, herritari bizia ematen diona.

Hemen esaten dugun guztia ez da gezurra!

Egia borobila da!

Sina dezagun denok, Uzturpe ikastolaren alde!

Erabakia Udalean hartu behar duzuenok ere bai!

Bittor Aizpurua Iraola, Ainara Lopetegui Galdos, Igor Zapirain Lizarribar, Zoren Basualdo Elustondo, Miren Garmendia Zeberio. Ibarako Uzturpe ikastolako haurren gurasoak.



Aldarrikapenerako bizikleta bira

IBARRA » Uzturpe ikastolako ikasle, guraso eta irakasleek bizikleta martxa egin zuten atzo arratsaldean, haur eskolaren kudeaketa ikastolak berak egiten jarrai dezan eskatuz. 80 bat lagun elkartu ziren eurari aurre eginez. Bestalde, helburu berdinarekin abian jarritako sinadura bilketan 900 sinadura inguru lortu dituzte oraingoz. ASIER IMAZ



Miel Mari Elozegi Luze 319 puntu lortu zituen larunbatean, eta puntu erdi batengatik saikatu zen finalerako. HITZA

Miel Mari Elozegi 'Luze'-k finalerako txartela lortu du

Leitza » Bigarren gelditu zen Beran egindako finalerdian, Barberenaren atzetik eta finalean ariko da, hilaren 15ean.

NAIARA GARZIA

Miel Mari Elozegi finalerako txartela lortu zuen larunbatean Beran egindako hirugarren finalurrekoan. Bigarren gelditu zen, beraz, 310 punturekin, Jon Barberenaren atzetik. Bertsolazale Elkartearen ustez, «Jon Barberena erraz nagusitu zen saioan», 339 puntu eskuratu baitzituen, beraz, zuzenean saikatu da Elizondan

martxoaren 15ean egingen duten finalerako.

Miel Mari Elosegiren atzetik puntu erdi bateko aldearekin Jon Elizetxe gelditu zen hirugarren. Bi hauetatik, ordea, soilik lehenak lortu du finalerako txartela. Finalean ariko den zortzikotea osatuta gelditu zen, beraz, azken finalurrekoaren ondoren: Erika Lagoma, Xabier Legarreta, Jon Barberena, Julen Zelaia, Xabier Terrenros, Julio Soto, Iñigo Olaetxea eta Miel Mari Elozegi Luze, hauen artean jokatu du txapela.

Larunbatean Beran egindako hirugarren finalerdiko puntuazio orokorrari dagokionez, Barberenak 339 puntu lortu zituen, Elo-

gik 310, Elizetxek 309,5, Lopezek 301,5, Fuentesek 296,5 eta Lazkozek 288.

Berako saioa, «makalena»

Iazko Txapelketan bigarren postua egin zuen Barberenak eta aurreten, Bertsozale Elkartearen ustez, «txapelarako hautagai sendoa dela erakutsi du Beran jokaturako finalurrekoan. Nagusitasun handiz irabazi du finalurrekoa, hasieratik segurtasun handia erakutsiz eta tarteka bertso politik kantatuz».

Bigarren eta hirugarren postuan lehia estua izan zuten Elozegi eta Elizetxek. Azkenean, leitzarra nagusitu zen puntu erdiko tartearengatik.



9 partidetatik denak irabazi dituzte Gonzalezek eta Barriolak. M. SOROA

Abel Barriolaren eta Sebastien Gonzalezen azkeneko garaipena

Pilota » 22-13 irabazi zieten Titin III.ari eta Laskuraini, Bengoetxea VI.ak eta Otxandorenak, aldiz, 22-13 galdu zuten.

N. GARZIA

Barriolak eta Gonzalezek beste garaipen bat gehiago lortu dute binakako txapelketan, eta oraingoz, 9 partidetatik bederatzia irabazi

dituzte. Bengoetxea VI.ak eta Otxandorenak, berriz, ez zuten finalurrekoetako ligaxkako lehenengo tantoa lortu. Olaizola II.a eta Mendizabal II.a 22-13 emaitzarekin gailendu baitzitzaizkien. Barriolak eta Gonzalezen partidak emaitza bera izan zuten, baina haien alde.

1000 lagun inguru bildu ziren Astelena Pilotalekuan. Barriolak eta Gonzalezek hagitz ongi jokatu zuten, eta aise irabazi zuten.

Txapelak ihes egin die eskualdeko aizkolariei

Urrezko Aizkora

Arrospeidek eta Aierbek Urrezko Mailan galdu zuten, eta Olanok eta Saralegik, gazteenean.

N. GARZIA

Larretxeak eta Atutzak irabazi zuten larunbat gauean Azpeitiako Izarraitz Frontoian jokaturako Urrezko Binakako Txapelketako finala, urrezko kategorian. Beraz, Arrospeide leaburuarra eta Aierbek txapeldunordeak izan ziren. Gazteen mailan txapela Larre-

xtea lehengusuentzat joan zen arren, 13 segundo besterik ez zizkieten atera Arkaitz Olanok eta Ruben Saralegik leitzarrei.

Arkaitz Olanok leitzarrek egindako lanarekin «pozik» daudela azaldu du. «Aurreneko urtea izanda oso pozik gaude egin dugunarekin, justu-justuan galdu baikenuen». 13 segundurengatik galdu izanak pena eman zela ere aitortu du. «Horrek beti pena ematen du. Azkeneko segundu arte ez zen jakin zeinek irabazi behar zuen. Haiek kortearrekin asmatu zuten eta guk golperen batean edo hanka sartu genuen».

» FINALISTAK

■ **Erika Lagoma.** Txantreako finalurrekoan irabazlea, zuzenean saikatu da.
■ **Xabier Legarreta.** Lekunberriko finalurrekoan irabazlea, zuzenean saikatu da.

■ **Jon Barberena.** Berako finalurrekoan irabazlea.
■ **Julen Zelaia.** 331 puntu, Txantreako finalurrekoan.
■ **Xabier Terrenros.** 320, 5 puntu, Txantreako finalurrekoan.

■ **Julio Soto.** 318,5, Lekunberriko finalurrekoan
■ **Iñigo Olaetxea.** 318,5, lekunberriko finalurrekoan.
■ **Miel Mari Elozegi.** 310 puntu, Berako finalurrekoan.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Hilberria

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri
eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

CARMEN ARANGUREN ARGOITIA

Andrea



Taldeko kideak
zurretaz ez gara ahaztuko.

Gero arte
Maa salama



TOLOSAN
2008ko
martxoaren 4an



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta/Leizor: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra/Leizor: 687 410 032. ibaralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Anoeta.** Udal areto nagusian, 19:30etik aurrera, Alkizako Kepa Fernandez de Larrinoa antropologoaren eta Anoetako Mikel Errazkin Aranzadi Zientzi Elkarteak kidearen *Intervencion y vinculo* liburuaren aurkezpena: herrien ondarea, nola zaindu, Anoetako adibidea...
- **Tolosa.** Larunbatean Kasino elkartearen Udaberri festa 20:00etatik 03:00etara: semaforo jokoa, buffet libre (janaria eta edaria), jantzi dotoreena eta originalenentzat sariak... Txartelak salgai 30 eurotan leltxu, Elorri eta Agustinenena tabernetan.
- **Tolosa.** Javier Urkolaren omeneko VII. Herri Duatloia martxoaren 8an, 16:00etan hasita: 2 km korrika, 15 km bizikletaz eta 2 km korrika. Izen-ematea, udaletxea, Karlis, Shanti Kirolak eta Zut-en.
- **Zizurkil.** Gutun Lehiaketa naturari buruz 6 urtetik aurrera. Bi lan aurkez daitezke, gehienez bi orrikoak. Gutunak Aiztondoko Zerbitzuen Mankomunitateko bulegora eramane behar dira, Zizurkilgo Muñoa kaleko 36 zenbakian.

Erakusketak

- **Ikaztegieta.** Ikasleek egindako plastika lanak ikusgai herriko liburutegian lau arratsaldetan. Arte Ederretako irakasle batekin egindako lanak dira, 16:00etatik 18:30era.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Ikastaroetan egindakoak erakutsiz

ZIZURKIL • Martxan jarri dituzte dagoeneko Emakumearen Nazioarteko Eguna dela-eta herrian antolatuko dituzten ekitaldiak. Hala, Atxulondo kultur etxean ikusgai daude ikastaroetan egindako hainbat eskulan. Atzo egin zuten inaugurazioa eta astean zehar aukera izango da hainbat

artelanez gozatzeko: patchwork, margolanak, bandejak, pitxarrak, kristal margotuak, kuxinak... Ekitaldiekin jarraituz, gaur hitzaldia egingo da Atxulondon. Bizkarreko minari buruz izango da eta Michel Maimer mediku ezagunak emango du, 18:00etan. I.GARCIA

A Agurrak



Urte askoan!

Ane Usandizaga Etxaniz. Otsailaren 25ean jaio zen. Ongi etorria! Zorionak bere aitaxo Unai eta amatxo Maitaneri.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

txokoa
h

emanaldirako
2 sarrera pare
zozketan

kilometroak 08ren

alde
Pirritx eta Porrotx




deitu eta eskuratu!



Martxoak 8, larunbata

17:00etan eta 19:00etan • Tolosako Leidorren



kontzerturako
2 sarrera pare deitu eta eskuratu!

Pedro Guerra

Ostirala,
martxoak 7
20:30ean
Tolosako Leidorren

